

EMAKUMEAK EZPATEKIN DANTZAN: 'VADE RETRO' ALA BADA GARAIA?

•Zuek bai jakin!: Urdangarin burdindegia •Agenda: Santa Isabel jaiak

•Izerdi patsetan: Zamoraren golaren biktima •Boteprontoan: Juanan Mendizabal

Herri Aldizkaria Otamotz

2011ko

ekaina

168. alea



PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Azaleko argazkia:** Alex Areizaga (Goierriko Hitza) **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Iker - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 **Hilabete honetako gaia**
Emakumeak ezpatekin dantzan: 'vade retro' ala bada garaia?
- 12 **Komikia / Egurra partitzen**
- 13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Festa zalea al'zara?
Nola bizi dituzu Zumarragako Santa Isabel jaiak?
- 14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 18 **Zuek bai jakin!**
Urdangarin burdindegia
- 23 **Gure gomendioa**
- 24 **Agenda**
Santa Isabel jaiak
- 26 **Izerdi patsetan**
Joxe Mari Yurrebaso: Zamoraren golaren biktima
- 28 **Gure aholkuak**
- 29 **Argazki zaharra**
- 30 **Boteprontoan**
Juanan Mendizabal



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Neskak ezpatekin dantzan: 'vade retro' ala bada garaia?

Zumarragan sinbolorik bada hori Antioko Ezpata Dantza da. Beste inon ez du halako indarrik, baina beste leku askotan ere dantzatzen da eta garrantzitsua da. Ez dago oso urrutira joan beharrik: Legazpin ere jaietako egun nagusian tokia du. Aurten Sustraiak taldeko kideek sorpresa itzela eman diete euren bizi-lagunei, neskek dantzatu baitute. Zer iritzi ote dute zumarragarrek horri buruz? Irrintzi dantza taldeko Eneko Galdosekin hitz egin dugu eta 50 herritarrei euren iritzia eskatu diegu posta elektronikoko bidez. Hamabi lagunek erantzun dute.



Hasteko, legazpiarrei euren ekimenaren berri emateko eskatu diegu. Sustraiak dantza taldeko Jon Dorronsorok 60ko hamarkadan hiru neskak parte hartu zutela gogoratu du. Mutil gutxi zeudelako izan zen. Aurten, ordea, dantzari guztiak emakumezkoak izan dira eta arrazoia beste bat izan da. “Taldeen urteren batean neskei aukera emateaz hitz egin genuen eta eurak ados azaldu ziren. Protagonismoa eman nahi genien. Taldean gehiengoak direla, mutil guztiok dagoeneko maiatzaren 3an plazan dantzatzeko aukera izan dugula eta Legazpin dantza berreskuratu zuena Sustraiak izan zela kontuan izan behar da”.

Gauza bat argi utzi nahi du: erabakia ez zen eztabaida pizteko hartu. “Dantza munduan kontu hauek aspaldi gainditu genituen. Mutilak falta direnean neskek dantzatzen dituzte euren dantzak eta alderantziz. Beasaingo Ezpata Dantzan, adibidez, emakumezkoak sokan irteten dira”, azaldu du.

Goierrri Beheko herrian emakumezkoek eta gizonezkoek berdin janzten dute, baina Legazpin neskek euren jantziekin dantzatu zuten. “Neure burua ez dut ez puristatzat eta ezta iraultzailatzat ere. Arropari buruz ez dut esateko ezer. Eurek beti bezala janztea erabaki zuten eta ondo iruditzen zait”.

Eta bizilagunek, zer esan zuten? “Gustatu egin zitzaien. Guk baino hobeto dantzatu zutela esan ziguten, baina oso seriak zeudela”. Datorren urtean gizonezkoak izango dira berriro ezpatak hartuko dituztenak. “Aurrerantzean mutilek dantzatuko dugu, edo horretan saiatuko gara behintzat, baina egunen batean nahikoa mutil ez badaude nesken esku utziko dugu edo



Zumarragako ezpata dantzari bat atzetik. Argazkia: Gotzon Aranburu.

mistoa izango da. Garrantzitsuena ondo dantzatzea da”.

Zumarragan Ezpata Dantza sinboloa da. Zumarragarrak iritzi berekoak izango al dira? Eneko Galdosek 23 urte besterik ez ditu, baina dagoeneko zazpi aldiz dantza egin du Antion. Gure deia jaso zuenerako bazuen Legazpin jazotakoaren berri.

“Ondo” iruditzen zaio neskek Ezpata Dantza dantzatzea. “Nahiago dut eurek dantzatzea ohitura galtzea baino. Noiz edo noiz gaiari buruz hitz egin dugu, txantxetan, baina sekula ez dugu aukera hori serio landu. Oraingoz nahikoa mutil ditugu eta orain arte bezala jarraituko dugu”, bukatu du.

“Neskek dantza egitea ondo irudituko litzaidake, baita publiko artetik mutilak ateratzea ere” (Gizonezkoa, 34 urte)



Irrintziko dantzari bat Amabirjiñaren aurrean.
Argazkia: Gotzon Aranburu.

Legazpiarren erabakiarekin ados nago. Ez daukat arrazoi sendorik, norberak egin dezala nahi duena. Zumarragan ere neskek dantza egitea ondo irudituko litzaidake. Baita publiko artetik mutilak ateratzea ere. Izan ere, Ezpata Dantzan emakumeak duen papera... Eta izan daiteke mutilak neska ateratzea, neskak mutila, mutilak mutila ala neskak neska... Oholtza horretan ez da emakumearen rola soilik aldatu behar. Tradizioa apurtzeko dago, nire ustez. Are gehiago

emakumeak (bueno, hark jokatu beharreko paperaren inguruko polemikak) eta elizak bat egiten duten Antioko Ezpata Dantza bezalako gai batean. Dena den, egia esan, nire ustez Ezpata Dantzak Santa Isabel eguneko osagai garrantzitsuena izateari utzi dio. Askoz gehiago bizi dut, adibidez, jaitsiera: herri osoak bat egiten du dantza eta saltoka arraza, sexu eta erlijio bereizketarik gabe. Bide batez, mozkor guztiak nola jaisten garen begira egoten den jendea ere ez dut

ulertzen... Sar hadi bada kalejiran! Izan ere, festa batzuetan aktoreak eta ikusleak daude eta horrek ernegatu egiten nau. Batzuk indioarena egiten eta besteak begira... Festak parte hartzeko dira! Jaitsiera ondorengo Iburreta kanpoko giroa ere hor dago, egitarau ofizialetik at dagoena, nahiz eta azkenaldian pixka bat formalizatu den. Nostalgian erori nahi izan gabe, uste dut garai batean bertako giroa askoz ere ganberroagoa zela.

“Ondo iruditzen zait neskek dantzatzea, baina eztabaida handirik ez pizten saiatuko nintzateke” (Emakumezkoa, 55 urte)

Ondo iruditzen zait neskek Ezpata Dantza dantzatzea, baina eztabaida handirik ez pizten saiatuko nintzateke. Pixkanaka sartuko nituzke neskek. Sokan hasi, adibidez,

gero denborarekin neskek eta mutilek berdin dantzatzeko. Oker ez banaiz gerra ondoren neskek ordura arte mutilek bakarrik dantzatzen zituzten dantzak dantzat-

zen hasi ziren mutil faltagatik. Gaur egun neskek ez dute batere arazorik mutilen dantzak dantzatzeko eta, mutilen falta ikusita, zergatik ez?

“Aurretik hainbat urretxuarrek egin badute, nola ukatuko diogu herritar bati neska izateagatik?” (Gizonezkoa, 33 urte)

Primeran iruditzen zait, nahiz eta agian naturalena neskek eta mutilek batera egitea izan: bereizketarik gabe eta X neska edo Y mutil egon diren zenbatzen jarri gabe. Dantza taldeak erabaki dezala zeinek dantza egin bere irizpideen arabera. Ez dakit Legazpin hautsik harrotuko ote

zuen, baina benetan bikaina iruditu zait aurretik inolako polemikarik ez piztu izana, hau da, beste inork jakin gabe neskek dantzatzera irten eta kito. Aurretik esan izan balute ziur egongo zela bazterrak nahastuko zituen norbait. Zumarragan halakorik? Zergatik ez. Eta oso serio esa-

ten dut, azken urteetan hainbat urretxuarrek egin badute -eta ez daukat ezer horren aurka, Irrintzikoek aukeratzen dute, eurek jakingo dute nola eta ez naiz horretan sartzen- nola ukatuko diogu herritar bati Ezpata Dantza dantzatzea neska izateagatik?

“Sustraiak taldearen sorpresa izan da? Orduan dantza norena da, herriarena ala dantza taldearena?” (Emakumezkoa, 31 urte)

Ez nuen ideiarik ere. Erabaki horren atzean legazpiarren gehiengoaren nahia egongo zela uste nuen, baina Interneten publikatu dena irakurri eta orduan bai gelditu naizela harrituta: Sustraiak dantza taldearen sorpresa izan da? Orduan Ezpata Dantza zeinena da, herriarena ala dantzatzen duen taldearena? Egia da bai Legazpin bai Zumarragan dantza taldeei esker (eta txistulariei esker) mantentzen dela Ezpata Dantza, baina horrelako erabaki bat hartu eta gainera sorpresa izatea... ez dakit bada... xelebrea iruditzen zait.

Zumarragari dagokionez, herritarren gehiengoak hala nahiko balu, ba aurrera, ez lidake traumarik eragingo. Hori bai, beti ere herritarren erabakia bada eta ez beste herri batzuetako feministek bultzatutako erabakia. Niri neuri ez litzaidake gustatuko.

Legazpiko Ezpata Dantzaren argazkia begiratuta, ez zait Ezpata Dantza iruditzen. Beste dantza bat ematen du, eta ez bakarrik dantzariak neskek direlako, estetikoki ere beste dantza bat dirudi. Ez dut Zumarragako Ezpata Dantza praka gorri eta alkandora zuriarekin

beharrean Legazpin bezala baserritar jantziarekin dantzatuta imajinatzen. Bestalde, gizon-emakumeen arteko berdintasunaren alde beste alor batzuetan egin behar dela iruditzen zait. Emakume bezala ez naiz diskriminatua sentitzen tradizioa jarraituz Ezpata Dantza gizonek dantzatu eta ondoren hauek emakumeak dantzara ateratzeagatik. Ez dakit legazpiarrek nola hartuko zuten, garbi daukadana da Irrintzi dantza taldeak uztailaren 2an horrelako sorpresa bat emango balu zeresan asko emango lukeela!

“Logikoa ikusten dut XXI. mendean ekitaldietan bereizketarik ez egitea neska eta mutilen artean” (Gizonezkoa, 31 urte)

Ez nekien Legazpin erabaki hau hartu zutenik, baina ondo iruditzen zait. Zumarragan ere neskek dantzatzea ondo irudituko litzaidake. Alde nago,

logikoa eta zentzuzkoa ikusten dudalako XXI. mendean sartuta jaietako ekitaldietan bereizketarik ez egitea neska eta mutilen artean parte hartzeko garaian.

Ezpata Dantzan mutilak bakarrik dantza egitean tradizioak aginduko du, seguru asko, baina tradizioak berdintasunaren alde alda daitezke.

“Askoz ere garrantzitsuagoa iruditzen zait eszena zaintzea dantza egiten duenaren sexua baino” (Emakumezkoa, 36 urte)

Nik uste dut joera naturala dela eta dantzaren esentzia berdin ulertu eta transmititu dezakete neskek edo mutilek. Gainera suposatzen dut Legazpin erabaki hori ondo pentsatu dutela eta beren arrazoiak izango dituztela. Askoz ere garrantzitsuagoa

iruditzen zait eszena zaintzea (dantza, pauso eta jantzi aldetik) dantza egiten duenaren sexua baino. Nire ustez Ezpata Dantzaren momentuak oso hunkigarriak dira eta dantzaria beraren sexua bigarren mailako zerbait da. Berdin zait dantzaria

ederra edo zatarra izatea, berdin zait mutila edo neska izatea, ez zait inporta zein futbol taldekoa den, dantza bera da garrantzitsuena. Ez nago ez alde, ez kontra. Baina horrelako gaiak naturaltasunez egitearen aldekoa naiz.

Ezpata dantzariak elizaren kanpoaldean. Argazkia: Gotzon Aranburu.



“Ez zait iruditzen herriaren gehiengoa horrelako eskaerarik egiten ari denik” (Emakumezkoa, 32 urte)

Legazpin hartu duten erabakiari zuzena derizot: ados jarri badira eta herriari ondo iruditzen bazaio zergatik ez? Zumarragako herriak edo gehiengoak

hori nahiko balu ez litzaidake gaizki irudituko neskek Ezpata Dantza dantzatzea. Nik egia esan, orain arte bezala egiten jarraituko nuke. Ez zait iruditzen

Zumarragako herriaren gehiengoa horrelako eskaerarik egiten ari denik. Emakumeok gatazka garrantzitsuagoak ditugula derizot.

Irrintzi taldeko dantzariak eta Antziñako Ama taldeko txistulariak Antioko zelaian.
Argazkia: Gotzon Aranburu.



“Emakumeok gizonezkoek dituzten eskubide berberak izan beharko genituzke esparru guztietan” (Emakumezkoa, 39 urte)

Legazpin hartu duten erabakia primerakoa iruditzen zait. Gaur egun neskek ere Ezpata Dantza dantzatzea normala izan beharko luke. Baita Zumarragan ere. Zergatik nagoen alde? Emakumeok gizonezkoek dituzten

eskubide berberak izan beharko genituzkeelako esparru guztietan, baita ohitura, tradizio eta kulturen ere. Ezin da jarri aitzakia bezala ohitura horrelakoa dela, ohiturak, denboraren poderioz aldatuz joaten baitira. Bestela, Erdi

Aroan bezala egongo ginateke. Zergatik zumarragar batek, emakumea izateagatik, ezin dio Antioko Amatorri Ezpata Dantza eskaini eta gizonezko batek bai? Emakumea naizen aldetik erabat baztertuta sentitzen naiz.

“Irrintzin dantzatu nahi duen neskarik ez badago beharrik gabe planteatzen ari gara kontua” (Gizonezkoa, 49 urte)

Ez zait gustatzen emakumeak eta gizonak bando ezberdinetakoak bagina bezala jokatzea eta, ez dut oso ondo ezagutzen nola egin duten, baina iruditzen zait Legazpin horrela interpretatu dutela Ezpata Dantza dantzatzearena: emakumeek demostratu behar diegu gizonei guk ere dantzatzeko eskubidea dugula. Berdintasunaren izenean gero eta gehiago bereizten ari gara emakumeak eta gizonak. Eta ez zait gustatzen gizon-emakume bandokeria hori eta diferentziak horrenbeste azpimarratzea. Baina euskaldunok hain bandozaleak izan gara beti!

Zumarragako Ezpata Dantzak badu formatu bat, historian zehar jorratua izan dena eta, nire ustez, funtsean errespetatu behar dena: paseoa, dantzaren egitura, doinua, janzkera... Eta azaleko aldaketak edo ukituak egin daitezke, noski, eta niretzat nork dantzatzeko duen azaleko kontua da. Niri berdin zait nor dagoen atorraren eta praken barruan dantzari ona bada: emakumea eta gizona, beltza edo zuria, kristaua, musulmana edo atea. Pertsona da dantzatzeko duena. Nik dantzari onak nahi ditut, besterik ez. Neskek dantzatu nahi badute dantza dezatela, baina dantza gustuko dutelako eta Ezpata Dantza barrenean sentitzen dutelako eta ez “emakumeek ere egin dezakegu” demostratu nahi dutelako edo gizartean “proceso de empoderamiento” batean daudelako. Azkeneko hau Ezpata Dantzaren erabilpen politikoa iruditzen zait.

Dantzari bat Amabirjiñaren aurrean belaunikatuta. Argazkia: Gotzon Aranburu.



Emakume eta gizonen arteko kontu hauetan naturaltasun falta sumatzen dut. Ezpata Dantzan emakumearen inkorporazioa naturaltasunez egin nahi bada planteamendu okerra egiten ari gara bi arrazoigatik: batetik kontrako taldekoak bagina bezala kontsideratzen zaizkigulako, batzuen eta besteen diferentziak azpimarratuz, eta bestetik kontu hauek neurri batean artifizialak direla uste dut. Hau da, nik ez dakit benetan Irrintzi taldean ba ote dagoen Ezpata Dantza dantzatu nahi duen neskarik. Ez badago modu artifizialean planteatzen ari gara kontua, beharrik gabe. Eta neska bat edo gehiago

baldin badago Ezpata Dantza dantzatu nahi duena, Irrintzi taldean nork dantzatu eta nork ez erabakitzeke aplikatzen diren irizpideak aplikatu diezazkiotela. Dantzatzea tokatzen bazaio entseatzen has dadila, lau haizetara zabaldu gabe, uztailearen 2an dantza dezala beste dantzari bat balitz bezala eta ikusiko duzu jende asko konturatu ere ez dela egingo. Baina ez litzaidake gustatuko Irrintzi taldean aurten neskek bakarrik dantzatzea eta poxpolinez jantzita erabakitzea: berdinak bagara elkarrekin dantza dezatela neskek eta mutilek modu naturalean janzkera errespetatuz.

“Emakumezkoen dantzak ere badira eta bakoitzak badu bere esparrua” (Gizonezkoa, 43 urte)

Legazpin egin dutena ez zait egokia iruditzen eta, beraz, Zumarragan hori egitearen aurka nago. Dantzek funtzio soziala betetzen zuten sortu zirenean eta funtzio hau aldatzen ari da bestela-

ko erabilera ematearekin (esaterako, aurrekua erabat tribializaturik dago). Ez dut uste berdintasun kontuak muturrera eramatea ona denik. Gizonezkoen dantzak diren neurrian, emakumezko-

nak badira eta bakoitzak badu bere esparrua. Benetako berdintasunean, gizon zein emakumeek edozein dantza egiterik izan beharko lukete eta ez dut uste horretara iritsi nahi denik.

“Neskek Ezpata Dantza dantzatzea eskubide eta justizia kontua da, ez iritzi edo tradiziozkoa” (Emakumezkoa, 22 urte)

Legazpin hartu duten erabakia beste erabaki bat gehiago iruditzen zait, ez dauka ezer berezirik eta erabaki guztiak horrelakoak izan beharko liriateke. Dantzariak ez liriateke sexuaren arabera banatu beharko, pertsonak bezala baizik. Pertsonak gara emakume edo gizon izan aurretik eta hori ahaztu egiten zai-gula dirudi. Zumarragan neskek Ezpata Dantza dantzatzea ere berdinean irudituko litzaidake: ez ondo eta ez gaizki, egin beharreko gauza bat baizik. Eskubide eta justizia kontua da, ez iritzi edo tradiziozkoa. Horregatik, hain zuzen ere, nago emakumeak Ezpata

Dantzatzearen alde: eskubidea delako. Bada garaia pertsona guztiak berdinean tratatzeko eta Ezpata Dantza herriarena baldin bada hau bete beharko litzateke eta ez herri erdiarena (gizonena) izan. Zumarragako festetan Ezpata Dantzarekin gizonak lortzen duten protagonismoak agerian uzten du berriro ere emakumeak bigarren plano batean gaudela eta jokabide pasibo bat dugula Aurrekua dantza diezaguten ateratzen gaituztenean. Jarrera hauek ez datoz bat gaur egungo gizon eta emakumeekin eta ematen du horretaz ez garela konturatzen.

Dantzariak. Argazkia: Gotzon Aranburu.




“Ondo egiten duen, entseguetara joaten den eta horrelako irizpideak izan beharko liriateke nagusi” (Gizonezkoa, 32 urte)

Legazpin hartu duten erabakia ondo ikusten dut: egoki ikusi badute aurrera. Denek izan beharko lukete parte hartzeko aukera. Zumarragan ere neskek

dantzatzeak ez nau bereziki kezkatzen. Emakume batek nahi badu besteek duten aukera berbera izan beharko luke, generoak ezin du mugatu dantza-

tzea edo ez. Ongi dantza egiten duen edo ez, entseguetara joaten den eta horrelako irizpideak izan beharko liriateke nagusi.



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Puto Amoak Matematiketan

Onartu beharra daukagu gure ibilbide akademi-koak oso gutxi izan zuela amankomunean izenbururako erabili dugun Ermuako Rock taldearen izenarekin. Hala da bai, «pakete integralak» ginen ariketa aritmetikoak egiten eta uste dugu, orain ere, hala izaten jarraitzen dugula. Horregatik izango da ez dugula ondo asimilatu pasa den maiatzaren 22ko emaitza elektoralak. Eta hori, Urretxun, zurrumurruek kontrakoa zioten arren, «Tirikitauki, $4+2+1$ dira 7 » egin ez duten, «Hamabigarrenean aidanez» osatzeko. Baina zumarragarra gara, eta kosta egiten zaigu Gipuzkoaren marko orokorrean gure herria espainolismoaren irla bat dela asimilatzea, Euskal Herria hiribidetik (hau paradoxa) pasatzen garen bakoitzean balkoi bateko era guztietako banderek gogorazten diguten bezala. Mina are eta handiagoa da, gure kalkuluak oker ez badaude behintzat, berriz ere gogoratzen dizuegu

matematikak ez direla gurea, zenbakiak aldaketaren aldekoak direla ikustean. Boto portzentajeak batuta $24,71$ (Bildu) + $19,41$ (EAJ) + $4,89$ (Aralar) = $\%49,01$ emango luke boto, nolabait deitzearen, «abertzaleak», $\%45,45$ nazionalista espainolisten aurka. Honi, orain arte udaletxean eramandako ereduaren aurka azaldu den Ezker Batuaren $\%3,11$ batuko bagenio, $\%52,12$ ra igoko litzateke aire berrien aldeko indarra. Tamalez, Zumarraga izango da Ajuria Eneako paktu antinaturalari jarraipena emango dion udal bakarretako bat. Hiruzpalau bozka bakarrik falta izan omen ziren, edo 261 sobratu, zilegitasun eta eskubide osoz emandako bozka horiekin bestetan erabili izan den «bozka erabilgarriaren teoriak» funtzionatu izan balu. Bere txarrean, gai garela ikusi dugu eta makinek eta obrek uzten badigute behintzat, uztailaren 2an, paseillo ofizialaren orduan, gure «momentikoa» izango dugu.

Festa zalea al zara?

Nola bizi dituzu Zumarragako Santa Isabel jaiak?



Ana Arrieta



Zumarragan bizi naiz eta festak gustura hartzen ditut. Pozik nago, Santa Isabel jaiak gertu direlako. Antioko eguna gustatzen zait batez ere. Goizetik gauera bizi dut, nahiz eta dagoeneko jaitsieran ez dudan parte hartzen. Danborrada ere gustatzen zait, jende gutxik parte hartzen duela iruditzen zaidan arren.

Gabriel Fernandez




Festak gustura hartzen ditugu, ez gara jaietan herritik alde egiten duten horietakoak. Ahal dudan ekitaldi guztietara joaten gara. Hurrekin barraketara joan behar izaten dugu dirua gastatzera. Herri kirolak ere atsegin ditut. Egia esan, egitaraua ondo dagoela iruditzen zait eta ez nuke ezer aldatuko.

Margarita Arias



Gehienetan kanpora joaten naiz, Errioxara. Dena den, festak gustatzen zaizkit eta hemen gelditzen naizenean ahalik eta ekitaldi gehienetan parte hartzea gustatzen zait. Izan ere, asko ditut gustuko. Geltokietako jaiak ere aurki dira eta horiek ere gustatzen zaizkit.

Luis Gezalaga




Jaiak onak dira. Beharrezkoak dira, bizipoza ematen baitute. Zumarragako jaiak Urretxukoak bezala bizi ditut: zenbat eta gauza gehiago antolatu, orduan eta gehiagotara joaten gara. Eta parte har badaiteke hobeto.

bota bertsoa!

Euskal Herriko eskolarteko txapelketa 2011. Agurain, 2011-6-18.

Kartzelako gaia: pilotaria zara eta buruz-buruko finalera iritsi zara. Gaixotasun bat tarteko, finala zure ordeztu beste pilotari batek jokatu duela esan dizute.

Maialen Akizu



Txapelketa jokatzeko're
nola egin nuen plana,
baina ospitalen gela batean
hau degu, hau, panorama.
Dejada, sake, bolea ona,
tantoak ditut andana,
hori entzunda hau det oraintxe
buru barru hontan barna
nere izerdiak ezertarako
ere balio ez izana.

Partida amaitu ta ze gustora
joaten nintzen etxea,
aste barruan nahiz ta sentitu
maiz egundoko trantzea.
Takoak jarri, pelotai eman
ta fuerte bota atzea,
ze ohorea izango zan bai
sakea ateratzea
zaila da lortzen ta ze erreza
dan ametsak puskatzea.

iritziz iritzi


Josune Zaramdona



Kirol Txartela: osasuna ala negozioa?

Urtamilean jarami zera indarrean Ulretxuko kiroldegian Kirol Txartela delakoa. Ez polemika gutxiarekin gairera. Kiroldegiko erabiltzailea maiz azken urteetan, eta iruzur handia izan dela esan dezaket. Zergatik? Lehenago eskaintzen ziren zerbitzu beragatik askoz ere gehiago ordaintzera behartuta gaudelako. Egia da orain arteko kuota beste kiroldegi batzuetakoak baino merkeagoak izan direla. Baina ez dezagun ahaztu eskaintzen diren zerbitzuak ere ez direla beste batzuen mailan egon. Erabiltzaileak ez gara tontoak eta Kirol Txartelak izan duen eragin negatiboaz ohartu gara. Klaseak hutsik daude lehen itxaron zerronda luzeak zauden lekuan. Udan klaseak emateko gutxienezko kopurua betetzera ez gara iristen. Gimnasioak akatsak dituzten edo zahar-

kituta dauden aparailuz hornituta dago. Urteetan kantxa erabili izan duten koadrelek ere joateari utzi diote. Baina gogorrena uda hastearekin etorri da. Herritarren ahotan bolo-bolo dabil igerilekuko txartela ateratzeak aurten suposatzen duena. Izan ere, 18 urtetik gorako langileak kirol txartela ateratzera behartuta daude, 100 euro ordaintzera alegia. Iaz 45 euro balio zuen hiru hilabeteetarako abonua. Zergatik behartu nahi ditu kiroldegiak igerilekuko erabiltzaileak bazkide egitera? Nora doa zerbitzu bera erabiltzeagatik ordaintzen dugun diru extra hori guztia? Kiroldegia erdi hutsik gelditu da, ez dadila gauza bera gertatu igerilekuarekin. Bada garaia, iruzur honi amaiera emateko erabiltzaileen eta kirol-zaletasunaren beraren mesedetan.



HARATEGIA URDAITEGIA

©943 72 00 61

Leturiatarren enparantza, 2
aramburutamilleta@euskalnet.net
ZUMARRAGA

Berezitasunak

- Urtez azpiko txahalen saiheski eta txuletak
- Aurrez prestaturiko jakiak eta esnekiak
- Esneko arkumea
- Bertako gazta eta kontserbak
- Aukera eta dasta itzazu gure ardo, txakolin zein sagardoak

Etxerako zerbitzua



Ondo pasa Santa Isabel jaiak!

Goierri bus



www.goierribus.com

Tel. 943 72 52 50 ■ Fax 943 72 58 70 ■ E-mail: goierribus@goierribus.com



Tel.-fax: 943 72 12 14
www.gainzuri.net
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu

Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
www.iparragirre.net
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu



ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa
Osasun familia
A eta D ereduak

Matrikula epeak:

Batxilergorako: ekainaren 20tik uztailaren 5era
Heziketa ziklorako: uztailaren 4tik 8ra



Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, zaharren egoitzetan, eguneko zentruetan, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

asirauto



Mugitegi industrialdea, URRETXU

Telf. eta fax: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79



Chrysler PT Cruiser 1.6 inyección - 2006



Citroën Berlingo 1.6 HDI 90CV - 2008



BMW 530D 218CV - 2003



Ford S-Max 2.0 TDCI 140CV - 2007



Opel Corsa 1.3 CDTI - 2005



Opel Astra 1.7 CDTI 100CV - 2008



Opel Zafira 2.0 CDTI 120CV - 2006



Seat Alhambra TDI - 2006



Suzuki GrandVitara Diesel 129CV - 2007

zuek bai jakin!

Ez duzula aurkitu? Sordonean galdetu al duzu?

Zumarraga eta Urretxun denda berezirik bada hori Urdangarin ferreteria da. 100 urte baino gehiago ditu, baina hasierako itxura eta izaerari eusten dio. Herritarren artean oso maitatua da: izan ere, jaio ginenetik ezagutzen dugu eta haurtzaroko oroitzapenak ekartzen dizkigu. Gainera, badakigu behar dugun hori bertan aurkituko dugula. Ziur. Mikel Urdangarinek eta Joseba bere semearekin hitz egin dugu familiaren negozioari buruz.

Joseba, Ane eta Mikel Urdangarin, Justina Lasa eta Noelia Branderiz dendaren kanpoaldean.



Soraluze kaleko denda Mikelen aitonak ireki zuen. Animaliei jaten emateko per-tzak egin eta saltzen zituen. Ondoren bur-dindegia ireki zuen. Joxe Urdangarin semea izan zen negozioarekin jarraitu zuena. Gizon hau Zumarragako alkate ere izan zen gerra aurreko urteetan. Hori dela eta, Urdangarindarrek oso gaizki pasatu zuten gerra garaian. "EAJko kidea zen eta 1936an Donibane Lohitzunera ihes egin zuen. Aita kanpoan zela, nire bi anaia zaharrenak hil ziren: 1940an Joxe Mari, 17 urterekin, eta 1942an Iñaki, 14 urterekin. Azken hau hil zenean aita etorri egin zen semearen gorpua ikustera: gauez etorri zen gida batek lagunduta, semearen gorpua ikusi zuen eta erbestera itzuli zen".

1944an Joxe Urdangarin behin-betiko itzuli zen. Frankistek Ondarretako kartze-lan sartu zuten eta bertan lau hilabete eman zituen. "Herria jasotzeagatik zigortu zuten! Aita alkate zen garaian La Salle-Legazpi ikastetxea, Kasinoa eta Antioko errepidea eraiki ziren! Aita ez zen politikaria, herriko semea baizik. Legazpi kaleko etxeak eta Artiz auzokoak Udalarenak zirela eta euren ondoren etorri zirenek saldu egin zituztela esaten zuen. Bestalde, dendako atzeko leihotik amuar-rainak ikusten zirela gogoratzen zuen. Euren garaian garbitu zen lehenengoz ibaia. Ondoren, utzikeria nagusitu zen".

Herriaren alde lan handia egin zuen arren, espetxean sartu zuten eta bere familiak gorriak ikusi zituen. "Bi anaia zaharrenak hilda zeuden, dendan oso jenero gutxi genuen...". Mikelen amak ez zuen etsi eta egun Ezkiotarra taberna dagoen tokian zegoen arropa denda hartu zuen. "Lokalaren jabea Donibane Lohitzunen zegoen nire aitarekin. 10 pezetarekin ireki

zuen denda. Guk margotu eta txukundu genuen eta hasieran 40 pezeta besterik ez genuen jenerotan. Ama 6.00etan joa-ten zen geltokira paketeen bila eta kafes-ne batekin ematen zuen eguna. Galantak pasatu zituen!". Denda hura 60ko hamar-kadan itxi zuten.

Mikelek bost anaia-arreba zituen: hiru neska eta bi mutil. Esan bezala, bi anaia zaharrenak gerra ondoren hil ziren eta, beraz, bera da ordutik seme bakarra. Hala, garai hartan ohitura zen moduan, bera izan zen aitari negozioan lagundu ziona erbestetik itzuli zenean.

Gezurra badirudi ere garai batean bi bur-dindegi zeuden bata bestearen ondoan:

*Mikel Urdangarinen aita
alkate izan zen gerra
aurreko urteetan eta
erbestetik itzuli zenean
kartzelan sartu zuten*

Urdangarindarrena eta Jauregitarrena. "Bestea ondoren Banco de Bilbao egon zen tokian zegoen. Jendea lehenengo batera joaten zen eta gero bestera. Konpetentzia sekulakoa zen", oroitzen du Joseba Urdangarin Mikelen semeak.


Aurrera egiteko gogor lan egin behar izan zuten. Josebak bere amaren, Justina Lasaren, papera aldarrikatu nahi du. "Ama izan da urte luzeetan lema era-man duena. Etorkinak heldu zirenean bera hemen zegoen eta oso ondo egoki-tu zen. Beraiekin ondo moldatu zen eta

euren beharrei erantzuten jakin zuen. Bezero asko kanpotik etorritakoak dira eta eurei eskerrak eman beharrean gaude". Etorkinak izan ziren, hain zuzen ere, dendari *la ferreteria del sordo* dei-tzen hasi zirenak. Izan ere, Mikelen aitak gorraizea zuen.

Garai hura egungoa baino oparagoa izan zen burdindegi txikientzat. "Lehia handia dago eta gurea bezalako dendak desagertzen ari dira. Hirietan burdindegi historiko guztiak ixten ari dira. Zergatik? Biltegiak hornitzen dituztenekin dagoene-ko ezin dugu lehiatu, Leroy Merlin eta halakoekin ere ez, txinatarrek ere min handia egin digute...".

Urdangarindarrak, ordea, eusten ari dira. Zein ote da sekretua? "Especializatu egin gara: giltza eta urrutiko aginteetan, batez ere. Bestalde, garai bateko dendaren izpi-ritua mantentzen saiatu gara, jende asko-ri gurea bezalako dendak gustatzen bai-tzaizkio. Horretaz gain, txinatarrek ez dituzten artikuluak ditugu (danbolinak adi-bidez) eta baita marka esklusibo batzuk (Lacor, Ibili, Vitornox...). Esatea tristea bada ere langilerik ez izatea ere funtsez-koa da. Denok etxeokak gara eta ondo asko dakigu hilabete batzuk besteak baino okerragoak izango direla. Bukatzeko, bezeroei arreta berezia eskaintzea ere garrantzitsua da. Txinatarrek eta merkataritza gune han-diek ezin dute hori eskaini. Honi guztiari esker ez doakigu gaizki eta negozioa apur bat handitzea ere lortu dugu".

Hala, baikortasunez mintzo da etorkizuna-ri buruz. Hurrengo belaunaldiaz hitz egite-ra ere ausartzen da. "Etorkizunean denda emakumeen esku ikusten dut. Nire emaz-tea gaztea da, dendako lana atsegin du



eta asko balio du. Bestalde, alaba izan dugu eta berak nire birraitonak hasitakoa-rekin jarraitzea gustatuko litzaidake. Mundu hau gizonezkoena zela zirudien, baina emakumezkoak gu baino hobekak direla uste dut: hartu-emanerako hobekak dira, grazia gehiago dute... Gainera, lan honetan dagoeneko ez dugu pisu handiekin ibili behar”.

Dena den, dendan badute oraindik gauza pisutsurik: Mikelen aitak eta aitonak erabili zuten ingudea, adibidez. “Urak hori ere botatzen zuen. 10 minututan dena pikutara bidaltzen zuen. Lehen dena egurrezkoa zen eta azkenerako dena ustelduta zegoen. Metalezko apalak eta baldosak jarri behar izan genituen eta sukaldea gora eraman”, oroitzen du Mikelek. Dendak hamaika zoko ditu eta horietako batean

bere anaia Joxe Marik usategia izan zuen. Beste txoko batean gizon batek bizikleta alokairu negozioa izan zuen.

Gezurra badirudi ere Urdangarindarrek ondo dakite non dagoen gauza bakoitza. “Etxekoak garela kontuan izan behar da. Badakigu zer daukagun eta herritarrek badakite denetik dugula. Ospe hori dugu herritarren artean. Bezero batek Madrilen aurkitu ez zuena gurean aurkitu zuela esan zigun. Halakoak entzutea oso pozgarria da. Gure lema edukitzea da. Semeari irabazi txikia ematen duten gauzak ez ekartzeko esaten diot, baina denetik ekarri behar dela dio. Lehen gauza zahar asko ere bagenituen, baina antikuario batek eraman zituen. Jendeak gauza oso arraroak eskatzen ditu eta batzuek nire aitak hau edo beste izaten zuela esa-

ten didate: haiek ere eduki behar badituz ederki nago...”, dio Mikelek.

Dena den, oraindik garai bateko gauzak azaltzen dira noizean behin. “Gauza batzuk zertarako diren ez dakit. Bati eta besteari galdetu eta inork ez daki. Aitona berpiztu beharko nuke jakiteko. Duela gutxi, asko kostata, horietako bat zertarako den jakin dut: parrilla itxura du eta antza denez kuboetan jartzen da pintore-arrabola eskurrizkeko. Uholdeengatik ez balitz zer ez ote genuke aurkituko hemen!”, gehitu du Josebak.

Egungo jeneroaz eta urteetan pilatutakoaz gain, itxi dituzten burdindegietan erositakoa dute. Urdangarindarren dendan garai batean Urretxu eta Zumarragako beste denda mitiko batean salgai zeuden gauzak eros daitezke: Ongirokoak, hain zuzen ere. “Ongiroko Iñaki pertsona bikaina da eta berari eskerrak eman beharrean gaude. Ixtera zihoanean guregana etorri zen eta bere dendako gauzek gurean bukatzea gustatuko litzaiokeela esan zigun. Izan ere, halako dendan amaiera oso tristea izaten da: gehienetan jeneroak batere estimatzen ez duen jendearen esku bukatzen du lau sosen truke”.

Ezinezkoa dirudi, baina Ongiron Urdangarinen baino gauza gehiago zituzten salgai. “Nire ustez Iñakiren denda Urretxu eta Zumarragako lehen txinatarrak izan zen. Berari esker, giltza zaharren museo bat dut. Hala, auto klasikoak giltzak egiteko aukera dut: Citroën Dyanne 6, Seat 600... Egia esan, auto zaharren giltzak egitea berrienak egitea baino errazagoa da. Izan ere, berriek txipak eta halakoak dituzte, makineria etengabe berritzen da, giltzak oso garestiak dira...”.

Hori dela eta, Mikel Urdangarinek giltzak



Mikel Urdangarin eta bere aita Joxe denda aurrean.

egiteari utzi zion. “Semea kanpora joan zen batean bezero bati ezin niola giltzarik egin esan nion eta berak gauza erraza zela erantzun zidan. Aukera eman nion eta, noski, ez zuen asmatu”, azaldu du. Burdindegiko gauzez eta giltzez gain, etxerako tresnak ere saltzen dituzte: etxetresna elektriko txikiak, sukalderako tresneria... Baita souvenirrak ere. “Herritarrok ez gara konturatzen, baina turista dezente etortzen da. Hori dela eta, turistentzat ikurrinak, Realarekin lotutako gauzak, lauburuak, arrano beltzak... saltzen ditugu”. Turistak ez dira euren dendara sartzen diren kanpotar bakarrak: Josebak pertsona ospetsu asko ere sartzen direla dio. “Herrian txirringularitza lasterketa bat antolatzen den bakoitzean txirringulariak gurera etortzen dira. Duela urte asko CLAS taldeko guztiak denda barruan izan genituen. Zelai Ariztira etortzen diren aktoreak ere dendara sartzen dira: Amparo Larrañaga, Luis Merlo, Tete Delgado...

gurean izan dira. Iñaki Miramonek, berriz, palak eta pilotak erosi zituen. Beste batzuek ondoren antzezlanean erabili dituzten gauzak erosi dizkigute”. Horrenbeste urte lanean eman ondoren, sariak ere jaso dituzte. “Bi Tartean elkarteak beti gutaz gogoratzen da, baina Gipuzkoa mailan ez gaituzte aintzat hartzen. Harritu egiten nau. Izan ere, egunkarian askotan ikusten dugu lanean guk baino askoz ere urte gutxiago daramatzaten merkatariei sariak ematen dizkietela. Aldundiak eta Merkataritza Ganbarak agiri pila bat bidali behar genituela esan ziguten. Sekulako lana da eta ez du zentzurik: ezagutzen gaituenak badaki zenbat urte daramatzagun. Nire ustez Donostia ingurukoak barnealdekoak baino aintzakotzagotzat hartzen dituzte. Urretxu eta Zumarragan urte gehien daramatzagunak Kandidoren harategia eta gu garela uste dut”. Aipatutako harategia berritu egin zuten, baina Urdangarin burdindegia apenas

berritu dute. “Batzuek denda ez berritzea leporatzen digute eta nik ere horretan pentsatu izan dut, baina nire ustez jende askori denda zaharren izpiritua gustatzen zaio. Nire ustez denda berrituko bagenu bezeroak galduko genituzke”.

Joseba Urdangarinnek bere lana maite du, baina ez da beti hala izan. “La Sallen ikasten nuen eta oporrak ematen zizkigutenean lagunak apunteak zubitik botatzen zituzten eta jolastera joaten ziren. Nik, berriz, dendan lagundu beharra nuen. Bazkalorduan urduri egoten nintzen: gurasoek arratsaldean nire laguntza behar zutela esango zuten beldurrez. Umetatik dendan lan egitea tokatu zait eta Batxilergoa bukatu nuenean hemen gelditzea erabaki nuen: Selektibitatea gainditu nuen, baina Kontabilitatea ikasi nuen La Sallen. Jendearekin hartu-emana atsegin dut, baina lan lotua da. Denok etxeokoa gara eta ez dugu oporrak hartzeko aukerarik. Astebete bakarrik ixten dugu, bezeroak ondo zaindu behar baitira”.

Zorionez, Noelia Branderiz emaztearen familia ere merkataria da eta ondo eza gutzen zuen mundu hau Zumarragara etorri aurretik. “Ondo asko ulertzen du lan hau lotua dela eta ez dagoela denda ixterik. Eurek gozoki denda zuten zine areto baten ondoan eta igande arratsaldeetan ere irekitzen zuten”.

Josebaren aita iritzi berekoa da. Burdindegikoa gustuko lana du, baina “oso gogorra” dela dio. “Denetik eduki behar da eta pazientzia behar da: bezero batzuk oso zorrotzak dira eta huskeria bategatik ordu laurden galarazten digute. Ez dago sinesterik zer nolako pazientzia behar den. Semeak ere galanta du. Asko balio du”, amaitu du.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erroren konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbira

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

HERCE

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Farmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

ALEX
KIROLAK

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

IKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

Julita

MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Tel. 943 72 05 62
Ondo pasa festak!

Javier Ugarte

HARATEGIA

943 72 43 32 (harategia) - 943 72 54 91 (etxea)
Iparragirre, 1 behe - Urretxu

URBE

Euskadi enparantza, 3
Zumarraga
☎ 943 03 65 58

Ondo pasa festak!

APAOLAZA

ERLOJU-DENDA
BITXI-DENDA

Soraluze, 5
☎ 943 72 16 18
ZUMARRAGA

Ondo pasa Santaixabelak!

EZKURRA

GOZOTEGIA
URRETXU

Iparragirre, 3 - Tel. 943 72 02 03
Labea: Labeaga, 54 - Tel. 943 72 62 19



Vidas y otras dudas

Anjel Lertxundi

Guztiok dakigu Anjel Lertxundi idazle aparta eta hausnargile bikaina dela. Hori erakusten du lagun batek oparitu didan liburu honetan. Liburu honen orrialdeetatik barna idazleak literaturaren inguruko ikuspuntu aberasgarriak ematen ditu. Pasarte mo-tzez ehotutako liburua da eta erraz asko irakurtzen da, bere gogoetez gain egungo zein haurtzaroko pasarteak nahasten baititu samurtasunez. Era bere-

an, aipu aberatsak emango dizkizu beste en ekarpenaren bitartez zure jakinmin hori asetu nahian. Lertxundik ez du bertaz bakarrik hitz egingo, baizik eta idazleak zurekin, irakurlearekin, halako elkarrizketa berezia sortu nahiko du eta iturri asezin-bukaezin den literaturan zein hari-mataza baldandu dezakezun erakutsiko dizu. Benetan, ez zara damutuko!

Andoni Salamero

Anari

Anari

“Gaua da kotxean sartzen naiz, euri malkoak parabrisan, eta ilargiak ez dit esaten ez non, norekin ikusten zaituen gau honetan”. Halaxe hasten da Anariren lehen diskako (Esan Ozenki, 1997) aurreneko abestia. Bere ahotsa huts-hutsean. Eta nik, oraindik ere, hotzikarak sentitzen ditut *Gure mundua* horren lehen hitzak eta lehen gitarra akordeak entzutean. Azkoitiarraren lehen diska da. 26 urte artean. Hasiberriaren xalotasu-

narekin, freskotasunarekin. Eta barne-mundu interesgarri, gordin eta poetiko bat munduratzeko prest. Aurrera ba! Entzun *Minaren funtsa* urratua. *Galderak 1*-ean galdetu zeure buruari zeintzuk diren aspaldian saihestutako hitzak: “zu, ni eta etorkizuna”. Eta zer esan *Desnudame, desnudame* la-tzari buruz... “Etorri eta kendu iezazkidazu arropak. Kendu dudak...”.

Igor Susaeta



Hego Koreako zinea

Mendearen hasierarekin batera hasi zen Hego Koreako zinema mendebaldera hel-tzen. Argumentu fresko, berritzaile, ezberdin, gordin eta birrintzaileak zekartzaten besapean eta maila tekniko altua eta itxura fina ere bai. Urteak aurrera joan dira eta Hego Korearen bultzadak bertan darrai. Zirkuitu komertzialean tamalez ez du leku handirik lortu. DVD edizioek, liburutegiek eta internet bitartez eskura dauden ahalbideek film

hauek ikusteko ematen duten aukera ikusiz, tarte hau aprobeztatuko dugu gomendioa egiteko. Hona hemen titulu batzuk: *Hierro 3; Primavera, verano, otoño...; Old boy; Sympathy for Lady Vengeance; Barking dogs never bite; Memories of murder; Mother; Oasis; Peppermint Candy; Virgin Stripped Bare by Her Bachelors; The king and the clown; Castaway on the moon...*

ButaK 21 zineklub taldea

Santa Isabel jaiak 2011

EKAINAK 23, OSTEGUNA

-19.00-Binakako Euskadiko Elite txapelketako bigarren final laurdenak. Beloki pilotalekuan.

-20.45-Zumarragako musika bandaren eta Antzinako Ama txistulari taldearen kalejira.

-22.00-San Juan sua Euskadi plazan. Musika bandak joko du.

EKAINAK 25, LARUNBATA

-10.00-Herri mailako plater-tiraketa Legazpiko tiro zelaian. Federazioko lizentzia derrigorrezkoa izango da.

-11.30-Musti Mujikaren oroimenezko txapelketa. Beteranoen arteko partida. Argixao futbol zelaian.

-12.00-20.00-Irrati emanaldia Kar elkar-teak antolatuta.

-12.00-Benjamin eta alebin mailako Zumarragako pilota txapelketako finalak. Zelai Arizti pilotalekuan.

-13.00-Musika eskolaren kontzertua.

-19.30-Profesionalen arteko erremonteko finalak. Beloki pilotalekuan.

-20.00 eta 22.30-*Los Golden en serio* ikuskizuna Golden Apple Quartet lauokoteak eskainita. Zelai Arizti aretoan. Sarrera: 12 euro. Ordutegia: 11.00etatik 13.00etara, 19.00etatik 20.00etara eta 21.30etik 22.30era.

EKAINAK 26, IGANDEA HAURREN EGUNA

-9.00-13.00-Irrati emanaldia KAR elkar-teak antolatuta.

-9.30-Kalejira Antzinako Ama txistulari taldearekin.

-11.30-Haurren eguneko festen hasiera ekitaldia. Alkateak alkate txikiari agintaritzaz ematea eta pregoia irakurtzea. Ekitaldi honetan bertso eskolako gazte-txoek ere parte hartuko dute.

-Ondoren-Irrintzi dantza taldearen saioa eta haur jolasak eta apar-festa Zelai Arizti pilotalekuan.

-13.00-Zumarragako musika bandaren kontzertua Zelai Arizti aretoan.

-16.30-Haur danborradan parte hartuko duten konpainia guztiak La Salle-Legazpi ikastetxearen jolastokian elkartuko dira.

-17.30-Haur danborrada.

-19.30-*Olinpiadak* haurrentzako jaialdia.

-19.30-Kalejira Urolatarrak txarangarekin.

-20.00-*Infernuko hauspoa* dantza eta musika ikuskizuna Korrontzi folk taldearen eta Oinkari dantza taldearen eskutik Zelai Arizti pilotalekuan. Eguraldi txarra eginez gero, ikuskizuna Zelai Arizti aretoan egingo da.

-20.00-Goiargi abesbatzaren emanaldia.

EKAINAK 27, ASTELEHENA

-11.00-13.00 eta 16.30-19.30-Haur parkea Euskadi plazan.

-18.30-Apar-festa Euskadi plazan.

EKAINAK 28, ASTEARTEA

-11.00-13.00 eta 16.30-19.30-Haur parkea Euskadi plazan.

-18.30-Apar-festa Euskadi plazan.

EKAINAK 29, ASTEAZKENA

-11.00-13.00 eta 16.30-19.30-Haur parkea Euskadi plazan.

-18.30-Apar-festa Euskadi plazan.

EKAINAK 30, OSTEGUNA

-11.00-13.00 eta 16.30-19.30-Haur parkea Euskadi plazan.

-18.30-Apar-festa Euskadi plazan.

-19.30-Ilunabar literarioa zenbait idazlearen eskutik. Testuen irakurketa eta olerkien errezitaldia. *Luma Berrien Eleak* aldizkariaren aurkezpena. Zelai Arizti kultur etxean.

UZTAILAK 1, OSTIRALA

-8.00-Asteroko azoka Euskadi plazan.

-11.00-Secundino Esnaola Musika eskolako trikitilarien kalejira.

-12.00-Haurrentzako poniak eta zezentxoak La Salle-Legazpi ikastetxean.

-17.30-Goitibehera jaitsiera.

-18.30-Antioko Amari ohiko bisita egingo diote agintariekin txistulariekin batera.

-19.00-Buruhandiak eta erraldoiak Iratzarri dultzaineroek lagunduta. La Salle-Legazpi ikastetxeko jolastokitik irtengo dira.

-19.30-Eslavaren salbea parrokan bertako abesbatzak abestuta.

-20.00-Kantu jira.

-20.30-Egan taldearekin dantzaldia Euskadi plazan.

-23.00-Elkarteen arteko danborrada.

-0.30-Egan taldea plazan.

UZTAILAK 2, LARUNBATA SANTA ISABEL EGUNA

-8.00-Txistularien kalejira.

-9.00-Argazki rallya. Izen-ematea: udal-etxe arkupeetan 9.00etatik 10.00etara.

-9.30-Euskadi plazan elkartu eta herriko

agintariak nahiz herritarrak Andre Maria Jasokundekoaren parrokia-elizara joango dira. Ondoren, herriko parrokiako kabildoekin batera Antioko Amaren elizara igoko dira.

-10.00-Herri mailako plater-tiraketa. Legazpiko tiro zelaietan.

-11.00-Ezpata Dantza, prozesioa eta meza nagusia.

-12.30-Ohorezko aureskua eliza aurreko zelaietan.

-13.00-Bertsolariak (Loidisaletxe eta Lazkano), Tolosako dultzaineroak eta trikitalariak.

-14.30-Herri-bazkaria.

-17.30-Erromeria Antzinako Ama txistulari taldearekin, Tolosako dultzaineroekin eta trikitalariekin.

-19.00-Antioko Amari eskaintza: bederatzaurrena eta errosarioa.

-19.00-21.00-Citroën klasikoen kontzentrazioa plazan.

-19.30-Kalejira Sugarri Show taldearekin.

-20.30-Agurra eta itzulera.

-21.15-Kaleko Ezpata Dantza plazan.

-21.30-Erromeria plazan.

-23.00-Su artifizialak Valecea Pir (brontzezko maskorra iaz Donostian) etxearen eskutik.

-23.30-Dantzaldia Fabulosa orkestraren eskutik plazan.

UZTAILAK 3, IGANDEA

-11.00-Berdintasunaren aldeko kultura-arteko jaialdia. Artisautza postuen irekiera. Euskadi plazan.

-11.00-Binakako Euskadiko Elite txapelketa. Finalaurrekoak. Beloki pilotalekuan.

-11.30-Berdintasunaren aldeko kultura-arteko jaialdia. Afrik&blai, Artexivu eta Paloteo de Cañizal taldeei harrera udal-txean. Ondoren kalejira.

-12.00-Haurrentzako poniak eta zezentxoak La Salle-Legazpi ikastetxean.

-12.30-Dantza eta musika erakustaldia Zelai Arizti aretoan. Parte hartzaileak: Mendizarra jota taldea, Yerbabuena sevillana taldea, Ondare dantza taldea, Irri Makila antzerki taldea eta Goizalde abesbatza.

-13.00-Musika bandaren kalejira.

-14.00-Jubilatuena bazkaria plazan.

-16.00-Xake txapelketa Elizkalen. Izen ematea (doan): 695 761 574 / j.albisua@euskalnet.net.

-16.30-Dantzaldia Euskodiskorekin Euskadi plazan.

-16.30-Mus txapelketa Bidezarren.

-18.00-Berdintasunaren aldeko kultura-arteko jaialdia. Zelai Arizti pilotalekuan. Eguraldi txarra eginez gero, Zelai Arizti aretoan izango da.

-19.00-Errekortadoreak Urolatarrak txar-

rangak alaituta La Salle-Legazpi ikastetxeko jolastokian.

-20.00-Papa Swing taldearen kalejira.

-20.30-Saloi dantzak plazan.

-23.00-Su artifizialak.

-0.00-Larrain Dantza plazan.

-0.30-Nueva Alaska orkestrarekin dantzaldia plazan.

UZTAILAK 4, ASTELEHENA

-12.00-Haurrentzako poniak eta zezentxoak La Salle-Legazpi ikastetxearen jolastokian.

-12.00-Idi-probak plazan. Parte-hartzaileak: Egoitz Armaolea, Iñaki Irigoras eta Inixio Izagirre.

-13.00-Afrikar batukadaren kalejira.

-13.30-Camping renove familia-antzerkia Kalebarren-Areizaga plazan.

-17.00-Haurrentzako meatzarien jolasak Zelai Arizti pilotalekuan.


-17.30-Idi-probak plazan. Parte-hartzaileak: Fernando Salegi, Xabier Zaldua eta Karlos Mujika.

-23.00-DJ Oihan Vega Areizaga-Kalebarren plazan.

UZTAILAK 10, IGANDEA


-10.30-Zumarragako herri lasterketa. 10.30ean eskola-umeak eta 11.00etan federatuak eta federatu gabeak.

-11.00-Binakako Euskadiko Elite txapelketa. Finalak. Beloki pilotalekuan.



Joxe Mari Yurrebaso, Zamoraren golaren biktima

Txirrindulari gipuzkoar batek Espainiako Itzuliko etapa bat irabaztea albiste handia da ezbairik gabe. Ez da urtero gertatzen. Joxe Mari Yurrebaso urretxuarraren garaipenak, ordea, apenas merezi izan zuen komunikabideen arreta. Zer dela eta ote? Gainontzeko gertakari ia guztiek bezala, honek ere badu bere azalpena: hiru egun lehenago Zamorak Realari lehen Liga eman zion gola sartu zuen Xixonen eta Gipuzkoa osoa titulua ospatzen ari zen. 30 urte beranduago bada ere Yurrebasok komunikabideekin garaipen hari buruz hitz egiteko aukera izan du.



1981eko Espainiako Itzulia apirilaren 20an abiatu zen Santanderretik eta maiatzaren 10ean amaitu zen Madrilan. Sarrerakoa eta 19 etapa izan zituen (horietako bi bikoitzak). 80 txirrindularik parte hartu zuten, zortzi taldetan banatuta. Irabazlea Giovanni Battaglin italiarra izan zen eta Pedro Muñoz eta

Itzulia Giovanni

Battaglinek irabazi zuen

eta Pedro Muñoz eta

Vicente Belda igo ziren

berarekin podiumera

Vicente Belda espainiarrak izan ziren berarekin podiumera igo zirenak. Sailkapen nagusiko lehen euskalduna Migel Mari Lasa izan zen. Lasak ere etapa bat irabazi zuen, maiatzaren 8an hain zuzen ere, baina ordurako gipuzkoarrak egunerokora itzuliak ziren.

Yurrebasok zortzigarren etapako lehen sektorea irabazi zuen: apirilaren 29an jokatu zen Jaen eta Granada artean. 100 kilometro zituen eta urretxuarrak irten bezain pronto beste lau lagunekin ihes egin zuela gogoratzen du. “Handik gutxira aldapa batean eraso jo nuen eta etapa ia guztia bakarrik osatu nuen. Arratsaldean Sierra Nevadara erlojupeko igoera genuen eta bagenekien sailkapen nagusian ondo kokatuta zeuden txirrindularien taldeek ez zutela gu harrapatzeko lan egingo”.

Granadako eski estaziora igoera gogorra

da, baina goizeko sektorea ere ez zen samurra izan. “Menditsua izan zen. Oraindik egun hartan igo nituen mendate-etako batzuen izenak oroitzen ditut: Carretero eta Onitar”. Baina Yurrebasok orduan 25 urte besterik ez zituen eta sasoi betean zegoen. Itzuli hartan zenbait ihesalditan sartzea lortu zuen eta Valladoliden bukatu zen etapan seigarren postuan heldu zen helmugara.

Gaztela-Mantxako Hueso-Manzaneque zen bere taldea eta Miguel Moreno mitikoa zuzendaria. Granadara bidean Morenoren oihuak entzun behar izan zituen, noski. Izan ere, ez zuen abantaila handirik lortu. “Bi minutu inguruko tartea izan nuen une oro. Ez nuen garaipenean pentsatzen. Nire helburua ahalik eta urrutien heltzea zen. Ez nintzen fidatzen eta denbora guztian atzera begiratzen nuen. Kilometro gutxi falta zirenean ikusi nuen garaipena nirea zela. Tropela baino minutu eta erdi lehenago heldu nintzen helmugara”.

Yurrebaso Espainiako ziklo-kros eta mendiko bizikleta txapelduna izan zen. Errepidean lortu zuen garaipen garrantzitsuena, berriz, Granadako izan zen. “Ilusioa egin zidan, baina egia esan, une hartan nik ere ez nion merezi zuen garrantzia eman. Orain konturatzen naiz Espainiako Itzuliko etapa bat irabaztea gauza garrantzitsua dela”.

Taldean ez zuten ezer berezirik egin garaipena ospatzeko. Ez zuten kaba edan eta ez zituzten pastelak jan. Izan ere, arratsaldeko sektorea zuten zain. Bestalde, Urretxu eta Zumarragan ez zioten ongi etorrikerik eskaini. Denboraldi amaieran Goierri elkarteak, Alejandro Egea zena buru zela, omenaldi txiki bat eskaini zion.

Esan bezala, Gipuzkoako komunikabideek ez zioten Yurrebasoren garaipenari merezi zuen arreta eskaini. Izan ere, Realak Liga irabazi ondorengo ospakizunak hastear ziren: Txuri-urdinek egun hartan bertan Sevillan Kopako partida jokatu zuten eta hurrengo egunean Gipuzkoara heldu ziren. Urretxuko txirrindulariak ezin izan zuen Realaren lehen Liga ospatu, noski. “Hoteletan futbolaz hitz egiten genuen, baina nik Juarezekin lo egiten nuen: Ingeniaritza ikasten ari zen eta etapan ondoren liburuak hartzen zituen”.

Yurrebasok denboraldi


amaieran errepideko

txirrindularitza utzi eta

ziklo-krosean bakarrik

aritzea erabaki zuen

Juarezek ingeniari titulua atera zuen eta Yurrebasok denboraldi haren amaieran utzi zuen errepideko txirrindularitza: nahiz eta Espainiako Itzuliko etapa irabazi zuen, eskaintza guztiak kaxkarrak izan ziren eta ziklo-krosean bakarrik aritzea erabaki zuen. “Gure taldea desagertu egin zen eta urtarrilean talderik gabe nengoan. Gau batean, dagoeneko ohean nengoela, Colchón CR taldekoek deitu zidaten. Ordura arte irabazi nuenaren erdia eskaini zidaten eta hurrengo egunean Alacantera joan behar nuen. Ezezkoa eman nien”, dio 1981eko apirileko beste heroiak.



Alex Areizaga

Informatika

Wikipedia eta euskara

Badirudi atal hau bizipoza hartzen ari dela, jada bi kolaboratzaile baitituz! Eta biek ala biek gai berbera proposatu didate! Hilabete honetako gaia Wikipedia da. Izan ere, Wiki-klopediak euskarazko 100.000. artikularen langa gainditu du. 100.285 artikulua daude oraingoz eta kopuru hau hazten ari da segunduro. *Euskararen debekua* izena du 100.000. artikulua eta friki-asanbladan erabakita sartu zuten (gero friki-poteoa egon zen). 32 dira Wikipedian kopuru hori gainditu duten hizkuntzak. Euskarazko lehen artikulua 2003an idatzi zen Wiki-klopedian eta 2006. urterako 10.000 artikulua gainditzen zituen. 2010. urtean 60.000 ziren jada artikulua. Etsaiak ere baditu, ordea, Wikipediak: urretxuar jatorrak. Izan ere, Iparragirri buruzko artikuluan hau dio: "Musikaren eta poesiaren ikuspegitik haren lanek balio handirik ez duten arren...". Zumarraga ere ez da libratzen. Bi herriotako pertsonaia maite askori buruz hitz egiten du Wiki-klopediak: Gaspar de Jauregi, Miguel Lopez de Legazpi, Josu Jon Imaz... Noizbait esan dudala uste dut, baina zumarragar bat 15 segundoz "Munduaren jainko" izan zen Wikipedian.



Izaro Soraluze

Osasuna

Filtro fisiko eta kimikoak

Eguzkiaz babesten gaituzten kremak behar bezala erabiliz gero izpi ultramoreen eragina murrizten dute. Crema guztiak, ordea, ez dira berdinak. Bi motatako osagaien bidez babesten gaituzte, filtro fisiko eta kimikoen bidez. Fisikoak gai mineralak izaten dira, suspentsio eran erabiltzen dira eta argiak ez ditu iragaten. Sakabanatu egiten dituzte eguzki izpiak azal barnera pasatzea galaraziz. Sustantzia kimikoetan oinarritutako kremak, berriz, xurgatu egiten dituzte izpi kaltegarriak eta ondoren bero moduan askatzen dituzte. Fisikoak askoz ere eraginkorragoak dira, batez ere azal txuri, haur eta alergikoen kasuan baina beren testura sendoa dela eta, kimikoak dira gehien erabiltzen direnak. Poliki poliki merkatuan zink oxidoa eta titanio dioxidoa bezalako molekula berriak dituzten crema fisikoak agertzen ari dira. Beren tamaina molekularra nanometro gutxikoa da eta horregatik ez dira hain sendoak eta ez dute azala txuri uzten.

70-80 hamarkada

Zumarragako sokatira taldea

70eko hamarkada amaieran eta 80ko hasieran sokatira taldea izan zen Zumarragan. Argazki hau Agurainen jokatu zen Euskal Herriko txapelketan atera zuten. Goran, ezkerretik eskuinera: Andres Aramendi, Juan Mari Izagirre, Joakin Izagirre, Jose Luis Goitia, Patxi Zabaleta eta Jon Antzizar. Beheran, ezkerretik eskuinera: Joxe Mari Aizkibel, Toribio Kerejeta, Jose Ramon Igartua eta Luzio Jauregi.



Juanan Mendizabal

Juanan Mendizabal zumarragarrik La Salle-Legazpi ikastetxean eta Joxe Mari Iparragirre institutuan egin zituen oinarrizko ikasketak. Ondoren Santiagora joan zen Farmazia ikastera, baina "ikasi izan ezik, denetik" egin zuela aitortu du. Bi urte eman zituen han eta ondoren Erizaintza ikasketak hasi zituen Donostian. 20 urte eman zituen Zumarragako anbulatorioan eta ondoren urtebete Donostian. Herrira itzuli da eta betirako izatea espero du. Zumarragar petoa da eta herriko jaiak hasteko gogo bizia du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Osasun munduak erakarri nau beti.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Bizikletan ibiltzea, spinning egitea, mendian korrika egitea... eta lagunekin pote batzuk hartzea.

Bizitzeko toki bat?

Zumarraga. Inongo zalantzarik gabe.

Santa Isabel jaietako une kuttuna?

Antioko jaitsiera eta danborrada.

Jaietako pasadizo bat?

Jaitsiera egiten hasi eta hiru aldiz bukatu dut ospitalean: behin eskafoidea hautsi nuen eta bitan bihurrituak izan ditut.

Zein duzu danborradako abesti gustukoena?

Zumarragako ereserkia jotzea sekulakoa da. Oso hunkigarria.

Donostiako danborradara joaten al zara?

Donostian ikasten egon nintzenean joaten nintzen. Bandera kentzen dutenean jotzen dituztenak nahiago ditut. Azpeitikoak ere, Frantsesena konposatutakoak, asko gustatzen zaizkit.

Realeko gustuko jokalaria?

Aranburu, Llorente eta Griezmann. Etorkizuna azken honena da.

Eta garai batekoen artean?

Satrustegi, noski! Mendeurreneko kamiseta erosi nuen eta atzean bere izena ipini nuen.

Ileheriak ala beltzaranak?

Ileheriak.

Egindako azken oparia?

Emazteari eskumuturrekoa.



Eta jasotakoa?

Emazteak duela hilabete oparitutako kolonia.

Data bat?

Semeen jaiotze egunak: uztailaren 15a eta irailaren 3a.

Mutil eta neska izen bana?

Jon eta Joseba, semeena, eta Ane.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Normalean *DV*. Realari buruzko informazioa *Noticiasen* irakurtzea gustatzen zait.

Gustuko telebista saioa?

Kirol saioa, batez ere tartean pilota bat badago.

Bereziki gorroto duzuna?

Belen Estebanena eta antzekoak.

Pelikula bat?

Los doce del patíbulo.

Liburu bat?

Ez dut irakurtzen.

Abesti bat?

Beatles taldearen edozein: *Let it be*, *Hey Jude*...

Soinu bat?

Itsasoarena.

Usain bat?

Kolonia on bat.

Janari bat?

Denetik jaten dut. Gose naizenean paellarekin amesten dut.

Ura ala...

Ardoa, beti.



Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

IKER

FAGOR



construcciones
mendiola

Labeaga, 7 URRETXU

Tf. 943 72 05 11

Fax: 943 72 44 10

E-mail: mendiola@cmendiola.com

www.cmendiola.com

Etxebizitzen
Eraikuntza

Industria
Pabilioiak

Urbanizazio
Lanak

